

*Iñigo Urkullu lehendakariak plataforma berria bisitatu du*

## **EROSKI-K PRODUKTU FRESKOEN BERE PLATAFORMA MAPA BIRDISEINATU DU IPARRALDEAN ARABAKO BLOKE LOGISTIKO BERRIAREKIN**

- Hozten dituen 17.000 metro koadroekin Jundizko plataforma berriak 300 denda baino gehiagoren produktu freskoak hornitzen ditu EAEn
- Horretarako, 20 milioi euro inbertitu ditu, eta 50 lanpostu sorrarazi
- Plataformaren jarduera guztia produktu freskoei lotua dago, eta egunean 400 tona baino gehiago kudeatuko ditu
- Osoki produktu freskoekin jarduteko izango da plataforma, eta 400 tona baion gehiago kudeatuko ditu egunean; horrekin, EAeko 200.000 bezerori baino gehiagori eman ahalko dio zerbitzua egunero
- Instalazio ekoeraginkor bat da, CO2 emisioak %13raino gutxitzea lortzen duena

Gasteiz, 2021eko maiatzaren 3a.- [EROSKI](#)k instituzioei ireki dizkie ateak gaur goizean produktu freskoen Jundizko banaketa plataforma berria erakusteko Arabako hiriburuan. 27.400 metro koadro baino gehiago dituen partzela batean dago, Jundizko industrialdean, eta 17.600 metro koadro oso ditu hoztuta. Hogeita hamar nasa ditu ibilgailu pisutsuetarako, eta 400 tona produktu fresko kudeatzeko modua ematen du. Instalazio berrietan 20 milioi euro inbertitu ditu EROSKI, eta 150 lagun inguru aritzen dira.

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Ramiro Gonzalez Arabako ahaldun nagusiak eta Gorka Urtaran Gasteizko alkateak inauguratu dute EROSKIren bloke logistiko berria, zeinetatik Euskal Autonomia Erkidegoko 300 denda baino gehiago hornituko baititu produktu freskoekin. EROSKIko ordezkari gorenekin batera, instalazioetako bisitan, hor egon dira Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun sailburua, Javier Hurtado Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburua, Eduardo Aguinaco Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko diputatua eta Maider Etxebarria Arabako alkateorde eta Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Turismoko zinegotzi ordezkaria.

EROSKIko lehendakari Agustin Markaidek esan du Jundizko banaketa plataforma berria *"moderno, eraginkorra eta iraunkorra"* dela eta hauxe nabarmendu du azpiegitura berri horretaz: *"EROSKI plataformaren sare garrantzitsu eta eraginkor bat osatu du Galiziatik Balearretara, eta balio du ekoizpena salmentarekin uztartzeko; alde horretatik, prozesu logistiko eta kudeaketa eta informazio sistema sofistikuak darabiltza, datu eta teknologiek garrantzi handia hartzen dutelarik"*.

Azpiegituren garrantzi logistikoa agerian gelditu da 2020ko pandemiarekin eta Filomena ekaitzarekin, balio katea tinkatu baitute. Gainera, *"Lehiakortasun akuilu bat dira ekoizle txikiarentzat, bestaldera eskura ez lituzketen merkatuen sarbidea"*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online** prentsa aretoa

*errazten baitie". EROSKIk nekazaritzako elikagaien 2.400 ekoizle txikirekin baino gehiagorekin lan egiten du, tokiko produktuari laguntzeko politikaren barnean, eta azken urtean %13 igo da haiei erositakoa, 995 milioi eurotaraino.*

*Hitza hartu duenean, EROSKIko lehendakariak azpimarratu du azpiegitura logistiko horiek nolako garrantzia duten tokiko produktu freskoaren estrategia antolatzeke orduan; izan ere, "kontsumitzaile eta langile kooperatiba garen aldetik, gure misioa eta borondate estrategikoa zera da, kontsumitzaileen elikadura hobetzea eta kontsumo hori iraunkorragoa izan dadin lortzea. Bide horretan, berehala aurkitzen gara produktu freskoekin, elikagaien piramidean oinarritzko osagai nagusiak direnak, batez ere tokian tokikoak, kontsumo lekutik hurbilekoak. Ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen iraunkortasunari zentzurik handiena ematen diotenak".*

*Tokiko produktu freskoa erdiguneko elementua da gizartea egiten ari den elikadura trantsizioan, "EROSKIk eragile aktiboa izan behar du eta hala izan nahi du elikadura trantsizio horretan erantzunak emateko orduan. Trantsizio horrek, gaur, erantzun baino galdera gehiago ditu, eta horren alde egin nahi du, esaterako, plataformaren bidez, zeinak balio kataren iraunkortasuna hobetzeko modua ematen baitu ingurumenaren eta ekonomiaren aldetik, lehen sektorea integratuta eta hura motor gisa hartuta".* Iaz, EROSKIk tokiko produktuen 2.000 erreferentzia inguru gaineratu zituen, horietatik %50 baino gehiago produktu freskoak.

### **"Ziklo bat amaitu dugu eta beste bat hasi"**

*Agustín Markaidek gogorarazi du taldea gauza izan dela "oso modu eraginkorrean gure bezeroen beharrei erantzuteko, bazkideen, langileen eta hornitzaileen lanari esker" eta, gainera, "elkartasuna erakutsiz eta gure dendak eskainiz gure hornitzaile ez ziren ekoizleei. Baita eragin askotarikoak jasan dituzten herritar eta kolektibo zaurgarriei ere, elikagaiak emanez, maskarak, baliabide ekonomikoak, zerbitzu segurua, kanal eta ordutegi babestuak... Harro gaude hala egin izanaz, baina jakinda aurrean genituen beharrak gure gaitasuna baino handiagoak zirela".* 2020an, EROSKIk, 12 milioi euro eman zituen gizarte ekintzako proiektuetara, eta nabarmentzekoa da milioi bat maskara eman zituela dohaintzan eta 6,5 milioi otordu kolektibo zaurgarriei.

*Era berean, gogorarazi nahi izan du taldeak %9 inguruko salmenta hazkundearekin amaitu zuela 2020a elikagaiei dagokienez, eta iparraldean (Galiziatik Balearretara) %13tik gora igo duela merkatu kuota. Alde horretatik, Markaidek taldearen gaur egungo egoera baloratu nahi izan du, EP Corporate Group Katalunian eta Balearretan bazkide paritario gisa elkartu den honetan, eta agertoki berria azpimarratu du. "Garrantzi handiko pausoa eman dugu, eta orain gure negozioak indartu egingo dira perimetro horietan, ekintzarako potentzia handiagoa izango baitute eta gure zorra normaltasun maila batera murriztuko delako. Hori da ibilbide luze baten azken pausoa. Honekin, ziklo bat amaitu dugu. Eta beste bat hasi. Ziklo berri honetan, gaitasun handiagoa eta hobea izango dugu enpresa kooperatibo gisa gure konpromisoa egia bihurtzeko".* EROSKIk 2.000 milioi euro inguru murriztu du bere zorra hamar urte honetan.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online** prentsa aretoa

## EROSKIren sare logistikoa

EROSKIk freskoen plataformak berritzeko proiektu globalago baten barnean sartzen du Jundizko produktu freskoen plataforma berria, *"balio katean eraginkortasun hobekuntza handia dakar plataforma eta garraio sare doitu eta lehiakorren bitartez eta gure lehiakortasuna bultzatzeko soluzio aurreratuekin"*. Lan baldintzak eta plataformen eraginkortasuna hobetzeko helburuz, EROSKIk automatizatu egin ditu Elorrioko, Sigueiroko (Coruña) eta Abrerako (Bartzelona) instalazioak, baita fruta eta berdura eskariak prestatzeko prozesuak ere Madrilen, Zaragozan eta Mallorcan.

Taldearen 1.300 saltoki pasari estaldura eta zerbitzua emateko, EROSKIk 23 plataforma propio ditu bere sare logistikoan. 360.000 metro koadro baino gehiago biltegitan, zeinetatik egunean milioi bat kutxa ere banatzen baitira.

## Instalazio ekoeraginkorrak eta iraunkorrak

Produktu galkorren logistika modernizatu ez ezik, ingurumenarekin errespetu handiagoz jokatu dute instalazioek, teknologia gaurkotuarekin hozte ganbera eraginkorragoak izango baitituzte, eta konfort eta segurtasun handiagoak emango dizkiete plataformako langileei. Instalazio berriak diseinatzeko orduan, aintzat hartu ditugu LEED GOLD nazioarteko ingurumen ziurtagiri ospetsuaren arauak eta baldintzak, eta, horiek betetzea lortuz gero, ziurtatuko dugu ekoeraginkortasun eta iraunkortasun estandar zorrotzak beteta egina dagoela eraikina.

---

### EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online** prentsa aretoa